JARDUERAK | 2. zk. | 2017 ekaina

8-10 URTE

MIGRAZIOA ETA BABESA

MUGARIK GABEKO ESKUBIDEAK: SAID ETA HARRESIA

kaleidoskópio



OXFAM Intermón

Said dut izena

Kaixo, lagunok. Said naiz, hamar urte ditut eta Lehortegi izeneko herrian bizi naiz. Nire lagun minak Marko eta Lina dira. Futbola izugarri gustatzen zait eta egunero joaten gara baloiarekin jolastera, harresiaren ondoko basora. Izan gogoan harresi hori, gure kontakizunaren ardatza izango da-eta!

Said

Lina

Marco

Egun batean, basoko soilgunean, Markok baloiari sekulako ostikada eman zionez, harresia jo, tximista bezala zuhaitzetara irten eta adaburu batean geratu zen. Lina eta ni arbolara igo ginen baloi bila eta, gora iritsita, harresiaz beste aldera, inondik espero ez genuena ikusi genuen: han urrutian etxeak zeuden, pertsonak zebiltzan kaleetan gora eta behera, umeak jolasean eta... harrigarria!: den-denek ilea urdina zuten. Ezin sinetsita nengoen!

JARDUERA*

Azaldu dizuedan narrazio horretako gauza batzuk ezin izan ditut ulertu. Lagunduko al didazue, mesedez?

* Jarduera guztiak garatzeko argibide gehiago dituzue gida didaktikoan.

- Zergatik inguratzen du Lehortegi harresi batek, zuen iritziz?
- Zer da hesi edo muga bat? Zertako balio du?
- Zuen herrian ba al dago harresirik? Zertako balio dute?
- Lehortegikoaren antzeko hesi, muga edo harresirik ezagutzen al duzue?
- Mugek ez ezik, zerk banandu ditzake pertsonak elkarrengandik?
- Harresi edo horma gaindiezinik ezagutzen al duzue?

Herriak eta herritarrak elkarrengandik bereiztea helburu duten harresiak, hesiak, mugak eta gainerako elementuak ugari dira munduan. Galdetu etxean, gurasoei eta senideei, pertsonak batetik bestera askatasunez ibiltzea eragozten duten muga edo harresirik duen lekurik ezagutzen duten. Bilatu, nahi baduzue, oztopo, harresi ikuskor edo ikusezin horien argazkiak. Gero, gelan, horma-irudia osatu eta iruzkinak egiteko aukera izango duzue.

Gure abenturan parte hartu nahi duzue?

Orain, horma eta harresiez gauza gehiago dakizkigula, aurrera egin dezakegu kontakizunarekin:

- Baloia eskuratuta, etxera korrika itzuli eta Linaren aitonarengana joan ginen, harresiaz beste aldeko itsas herri hartan nor bizi ziren galdezka. Honela kontatu zigun aitonak:

"Baziren han bi herri, elkarren ondokoak, eta bietako herritarrek harreman estua zuten. Lehortegi zen gure herria, barrualdean, eta itsas aldean Itsastiri zegoen. Ni Itsastirin jaio eta bizi izan nintzen eta Linaren amona, berriz, Lehortegin. Maiz ibiltzen ginen biok, orain basoan, orain hondartzan, paseoan. Amonari hondartzak tiratzen zion eta ni basoan ibiltzen nintzen gustura. Hoberena, senide eta lagun asko genituela biok, bai Lehortegin, bai Itsastirin ere.

Urte askotan bi herriak bakean bizi izan ginen, zoriontsu. Gauza asko komun genituen eta beste batzuetan, berriz, iritzi desberdina genuen. Itsastiritarrok ilea urdina genuen.

Lehortegitarrek, berriz, kolore desberdinetakoak: beltza, gorria, zuria... Urdinik ez, ordea. Batzuen iritziz, urdin kolorea itsasoa gertu izatearen ondorio omen zen; beste batzuen aburuz, arraina, itsaskiak eta aukak jatearren. Ez dakigu zergatik, kontua da batzuen eta besteen ilearen koloreak desberdinak zirela.

Dena ondo zihoala, halako batean, itsastiritar batek eta lehortegitar batek borrokaldi latza izan zuten. Arrazoiaz inor ez da gogoratzen baina, pixkanaka, bi herrietako lagunak mesfidati agertu ziren ondoko herrikoekiko.

Ile urdinekoak gaizto eta arriskutsuak ginela esaten hasi ziren besteak. Bateko eta besteko herritarren arteko haserrealdi eta borrokak ugaldu egin zirenez, bi herriak bereiziko zituen harresi bat altxatzea bururatu zitzaien batzuei: horrela, ondo bidean, liskarrak amaituko ziren. Beste herritar batzuek, aldiz, hura erokeriatzat hartu zuten: beti-beti elkarrekin bizi izan ginenez, harresia alferrikakoa zela zioten. Hauen iritziz, bazegoen desberdinak izan eta elkarrekin bizitzea.

Nolanahi ere, harresia eraikitzen hasi ziren. Hasieran txikia zenez, hormatxoa jauzitxo bat eginda, Lehortegitik Itsastirira eta alderantziz erraz pasatzen ginen. Pixkanaka, ordea, alkateak eta herritar batzuek gehiago altxatu zuten, elkarrekiko beldurra geroz eta larriagoa zelako. Harresia altuagoa eginez gero, alde batekoak ezingo ziren pasatu beste aldera.

Goiz batez Lehortegira etorri nahi izan nuen, Linaren amona ikustera eta, bide batez, betiko lagunekin kartetan jokatzera. Garbitu, txukundu, jantzi eta etxetik atera nintzen, jertsea bizkar gainean ipinita, ilunabarrean hoztuko zuelakoan. Hara heldu eta, ezin sinetsirik gelditu nintzen: harresia izugarri altua zen, ia-ia ezin zen gainditu. Eskailera edo antzeko zerbait beharko nuen, gutxienez, beste aldera pasatzeko.

Horrek biziki tristetu ninduen... nola gerta zitekeen halakorik?

JARDUERA*

Gizakiok, betidanik, munduan barrena ibili izan gara bizileku berrien bila, paisaje berriak ikusiz, lan eskean, arriskutik edo bortxakeriatik ihes eginez edo, besterik ez bada, gure lagun maiteen alboan egon ahal izateko.

Zuen etxean ikerlan bat egitea proposatuko dizuegu: inprimatu ondorengo galde-sorta eta bete ezazue, senideen laguntzaz. Ondoren, gelako kide guztien artean jorratuko dugu.

> Non jaio zinen?

> Non jaio ziren zure aita eta ama?

> Non jaio ziren zure aitona-amonak?

> Zure seniderik bizi izan al da oraingo bizitokia ez den beste nonbait?

> Beste nonbaiteko pertsonarik ezagutzen al duzu? Nongoa da?

> Zergatik alde egin zuen bere hiri, herri edo herrialdetik?

> Nola sentitu zen alde egin beharrean?

> Nola alde egin zuen? Norekin alde egin zuen?

> Nola sentitu zen leku berrira iristean? Egokitzea gogorra egin al zitzaion?

> Pertsona ospetsurik ezagutzen al duzu? Nongoa da? Zergatik gustatzen zaizu?

- Nola dago osatua zuen gela?
- Zuen familiek ere jatorria kanpoan dute?
- Irakurri orain etxean eginiko elkarrizketak. Zuen senideren batek beste nonbait bizitzera joatea erabaki al du?
- Beste hiri, herri edo herrialdetik hona etorri den norbait ezagutzen al duzue?
- Zergatik erabaki zuten hiriz, herriz edo herrialdez aldatzea?

JARDUERA

Urteak joan, urteak etorri, herriak, hiriak, herrialdeak sortuz joan ziren eta, haiekin... bai, mugak.

Orain proposatuko dizuet ezagutzen dituzuen muga guztiak mapan marraztea. Ahalegindu zaitezte bilatzen zertarako eraiki ziren, pasatzerik ba ote dagoen eta hori nork erabakitzen duen.



JARDUERA

Lehortegi eta Itsastiriko historiaz, eta harresien historiaz, oro har, gogoeta egiteko, aspalditik ezaguna duzuen jokoan aritzea proposatuko dizuet: katearen jokoa da.

Patiora joan beharko dugu, leku zabala behar dugulako, korrika egingo dugu-eta. Hasteko, hiruzpalau neska-mutiko, eskutik helduta (katea osatuta), pistaren erdialdean ipiniko dira, Itsastiri eta Lehortegi bereizten dituen harresi modukoa osatuta. Gainerako ikaskideok herritarrak zarete eta alde batetik bestera ibili beharko duzue. Helburua da harresia pasatzea, katea osatzen dutenek harrapatu gabe.



Jakin beharrekoak:

Harrapatzaile bakarrak katemuturrekoak dira, tartekoak ez.

Erdialdeko arkuetatik edo muturretatik pasatzen bazarete, beste aldera iritsi ahal izango zarete, salbu.

Katea osatzen dutenak eskutik askatzen badira, ezin dute inor harrapatu.

Katea osatzen duzuenok harrapatzen baduzue norbait, hori katean sartuko da, "harresia" geroz eta luzeagoa eginez.

Orain, une batean atseden hartuz, kate jokoan sentitu dugunaz hitz egingo dugu. Nolako sentsazioak izan dituzue? (Adibidez, beldurra, amorrua, alaitasuna, urduritasuna, lasaitasuna...). Noiz sentitu dituzue horrelakoak, jokoaren hasieran, pasatzen lortutakoan, harrapatuta sentitzean...? Nolako sentsazioak bizi izan zituen Linaren aitonak, zuen ustez, pasatu ezinik gelditzean?

Historia harrigarri hura

Saiden aitona

Saiden amona

Egunon, berriro ere. Oraintxe ezagutu dudan historia harrigarri bat azaldu nahi dizuet.

Etxera heldu eta amari azaldu nionean Lina, Markos eta niri gertatu zitzaiguna, eta Linaren aitonak guri kontatu zigun guztia, negarrez hasi zen ama. Malkoen arrazoiaz galdetu nionean, ordura arte entzuna ez nuen zerbait kontatu zidan: "Zure aitona-amonak ere Itsastirin jaio ziren baina hori inortxok ez daki. Herrian lanik ez zegoenez, bertatik alde egin eta hona etortzea erabaki zuten, hemen aukera gehiago zegoelako. Aitonaren anaia zen osaba Hammed-ek ere etorri nahi izan zuen, baina ordurako harresia altuegia zen eta herrian geratu behar izan zen. Historia horrek beti tristetu nau. Ni Lehortegin jaio nintzenerako horma handia zen. Aitona-amonak eta neu betidanik ibili gara ilea tindatzen, itsastiritarrek jakin ez dezaten hemengoak ez garela, gurekin gaizki joka ez dezatela... Eta, zuk bezala, ez dut aukerarik izan harresiaz bete aldera pasatzeko, Itsastiri eta bertako herritarrak ezagutzeko, itsasora ateratzeko... Hau ez genizun esan lehenago, zu ez kezkatzeko.

- Hori bai latza, ama...! Osaba Hammed, ordea, non da?

Hammed —esan zidan amak— Itsastirin, borrokan dabil oraindik, harresia behera botatzeko laguntzaileak biltzen. Nire ustez, berak ez ezik, beste herritar askok ere eraitsi nahi dute horma baina, hemen bezala, beste batzuek nahiago dute arazo horren aurrean ez-ikusiarena egitea. Horregatik gobernariek ez dute ezer egiten egoera aldatzeko.

Desberdina izatea, nire iritziz, ez litzateke arazoa izan behar, denok ditugulako besteak ez bezalakoak bihurtzen gaituzten gauzak eta besteen antzekoak bihurtzen gaituzten gauzak.

Horrek esan nahi du besteengandik asko ikasteko dugula, beraiekin partekatuz gero, ezta? Maiz, agian, gehiegi erreparatzen diegu desberdintasunei eta gutxiegi berdintasunei, ez al zaizue iruditzen?

Argibideak, Gida didaktikoan

- Jorratu gelan: Zer iruditu zaizue historia hori? Bizi duten egoera bidezkoa al da?
- Zer esan nahi du horrek, zuen iritziz?
- Nola sentituko zinatekete, antzeko zerbait gertatuz gero?
- Zergatik esaten du Saiden amak ez zuela desberdina izan nahi?
- Zer esan nahi du “desberdina izateak”?
- Hammedek (Saiden osabak) zergatik behar ditu laguntzaileak?
- Osaba horren lekuan, zer egingo zenukete zuek?

JARDUERA

Orain, gai hori jorratzeko, beste joko bat proposatuko dizuet: mundua koloretan.

Hasteko, irakasleak bekokian pegatina bat ipiniko dizue. Hori ezingo duzue kendu. Ondoren, hitzik esan gabe, taldeak sortu behar dituzue, zuen erara... Hitzik ez esatea garrantzi handikoa da. Goazen aurrera!

- Jokoa gustatu al zaizue? Zergatik bai / zergatik ez?
- Nola osatu dituzue taldeak? Taldea osatzea erraza izan al da? Nola sentitu zarete?
- Norbait gelditu al da talderik gabe? Zergatik?
- Desberdin sentitu zarete? Zergatik? "Bestelakoa" izatean, zer sentitzen da?
- Taldeak nola tratatu ditu "bestelako" horiek?
- Beste modu bateko taldea egiterik izan al dugu? Ba al dugu beste ezaugarri komunik?
- Inoiz sentitu al zarete orain jokoan bezala?
- Joko honek, eguneroko bizitzan, zer adierazi nahi du, zuen iritziz?

Benetan sinesten dut, harresiak altxatu ordez, gizakiok hizketan geure arazoak konpontzen eta bestearen desberdintasunak onartzen ahalegindu gaitezkeela, herritarrak zoriontsu eta bakean bizi izatera hel daitezen. Ederra litzateke bereizten gaituen horma hori behin betiko eraistea, bi herriak bakean eta zoriontsu bizi daitezen. Ez zaizue iruditzen?

JARDUERA

Horregatik, hauxe proposatuko dugu: orain arte, aste hauetan ikasi ditugunak bildu eta, horiekin, *bidegabekerien harresia* altxatuko dugu. Hori ere, behin betiko botako dugu lurrera.

Horretarako, hustu eta garbitutako tetrabrikak edo kutxak erabiliko ditugu. Kutxa edo tetrabrik bakoitza adreilu bat izango da eta horren azal baten neurriko hiru paper zuri ebakiko ditugu. Orain, aukera ezazue beste pertsonengandik desberdin egiten gaituzten hiru gauza edo ideiaren bat. Idatzi edo margotu ezazue paperean, edo bilatu argazkiak. Ondoren, ebaki ditugun paperetan itsatsiko ditugu.

Galdetu senideei eta gelako ikaskideei ere. Haiek lagunduko zaituzte buruari bueltak ematen eta horma eraikitzen. Anima itzazue ikastetxeko beste geletakoak ere, parte har dezaten!

Mugarik gabeko eskubideak

JARDUERA

Konponbideren bat bilatu beharko genuke, Lehortegi eta Itsastiri berriro elkarturik eta bakean bizi daitezen; horrela, osabak lagunduta, Itsastiri ezagutuko genuke.

Seguru buruan duzuela ideia ederren bat. Burua erabili, bai, pentsa ezazue zer egin beharko luketen hori lortzeko. Jorratu kontua gelan, idatzi testua eta egin denon artean marrazki bat, harresia eraisteko erabakia nola hartu den azalduz. Zuen marrazkia bosgarren bineta izango da.

Nire familiaren historiak biziki kezkatu nau: hainbeste borrokaldi, beldur eta mesfidantza direla medio, aitona-amonek ezin izan dute jaioterrira itzuli eta, areago, nire gurasoek eta ni bezalako herritarrek ezin izan dugu ikusi zer dagoen harresiaz beste aldera. Hori bai aldrebeskeria galanta, ezta?

Ederra litzateke bereizten gaituen horma hori behin betiko eraisteko formula aurkitzea, bi herriak bakean eta zoriontsu bizi daitezen. Lagunduko al didazue horretan?

Zuen marrazkia ipuin honetako bosgarren bineta izango da



Ez ahaztu: marrazki bakar bat igo dezakezue gelako. Beraz, bururatu zaizuen konponbidea adieraziko duen marrazkia aukeratu behar duzue denon artean. Zergatik ez aukeratu denok onartzen duzuen amaiera bat ere?

JARDUERA

Luzaro aparte bizi izanik, horma eraitsi ondoren zer egin zuten bi herrietako lagunek, zuen ustez, berriro elkar ikusi zutenean? Zerk harritu omen zuen herritarra, beren buruaz eta besteez? Desberdintasunen ondorioz berriro ere arazoak izan zituztela uste al duzue?

Problemak izan bazituzten, nola konpondu zituzten? Akaso ez zuten arazorik izan, desberdin bihurtzen zituen ezaugarri hura ezagutzea gustukoa izan zuten akaso, bitxia edo interesgarria zelako... Gai hori gelan jorratu ondoren, denon artean marrazki bat egin dezakezue, herritarren artean gertatu zena adierazteko. Marrazki hori seigarren bineta izango da, atzenekoa.

Apurtu harresiak!

Amaiera ederrak asmatu dituzue ipuinerako, seguru!

Azkenean, bi herrietako herritarrak elkartu eta ulertu genuen kontua: ezezagunaren aurreko beldurrak ezin gaitu geldítu. Ikusi dut gizakiok gauza garela hitz eginez gure arazoei konponbidea bilatzeko, gure desberdintasunak baloratzeko eta batak bestearengandik errespetuz asko ikasteko. Orain badakit gure herriak etorkizunean bakean eta zoriontsu biziko direla.

JARDUERA

Orain, egun hauetan ikasi duguna inoiz ez ahazteko, gelako ikaskide guztion artean, hurrengo esaldiak osatuko dituzue, nahi baduzue. Ondoren, eskegi itzazue horman, egunero-egunero gogoratu ahal izateko:

> ..... gelako neska-mutikoek
..... aurkitu dugu.

> ..... gelako neska-mutikoek
..... gustatzen zaigu.

> ..... gelako neska-mutikoek
.....
..... nahi dugu.

JARDUERA



Nola doa bidegabekerien harresi hori? Tira, lurrera botatzeko unea iritsi da.

Horma, gaur bertan hasi eta zuek eraistea erabakitzen duzuen arte osatu ahal izango da. Nahi baduzue, eskatu beste geletakoei adreiluak (kutxa edo tetrabrikak) ezartzeko eta marrazki, argazki edo idazkiekin elika dezaten horma, beti-beti gai hau izanik: besteengandik bereizten gaituzten gauzak. Zuek egindako guztia (argazkiak, abestiak, manifestuak, poemak, etab.) eta asmatutako amaierak bildurik, zuen ikastetxean erakusketa egin dezakezue. Erakusketarako inbitazioa egin diezaiekezue senideei, auzo-lagunei, Udaleko pertsonei, etab., haiek ere istorioa ezagutu, parte hartu eta harresia eraisten lagun dezaten.

#DerechosEnMovimiento





kaleidoskópio

OXFAM Intermón